

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera eramateko eta etekin handiagoa ateratzeko, hortz eskuilekin zerikusia duen beste enpresa batekin eta dentistekin harremanetan jartzea egokia iruditzen zaigu. Guk geuk, produktua egiteko neurriak hartuko ditugu eta ondoren harremanetan jarritako enpresari guk hartutako neurriak bidaliko dizkiegu produktua hornitu ahal izateko. Gero, enpresa honek produktua ekoizita bidalioko digu gure dendara eta bezeroak aukeran izango du produktu bera dendan edota etxean jasotzeko.

Guk gure katalogoan, adibidez, hortzak garbitzekoa erakustez gain beste enpresa honen zenbait produktu ere azalduko ditugu, hortzetako pasta adibidez. Horrela, gure bezeroak beste enpresako produktuak erostera bultzatu ahal ditugu. Honek, bai gure enpresari eta bai gurekin harremanetan jarritako enpresari onurak ekar ditzazke.

Garrantzia gure produktuari emango diogu eta hau izango da gehien patrozinatuko duguna. Honetarako, publizitatea erabiliko dugu; interneten, egunkarietan, telebistan...